

L = Irakurtzalea (Lecteur/lectrice :

+ = Jesus. Apeza

D = Dizipulu, adixkideak (Disciples, amis)

Ostirale saindu A-B-C

+ **Jesu Kristoren Pasionea Jondoni Joaniren liburutik**

18, 1-19,42

L Afal ondoan, joan zen Jesus bere dizipuluekin Zedrongo erreka haindirat ; baitzen han baratze bat, bera eta dizipuluak han sartu ziren . Haren saltzaile Judasek ere ezagutzen zuen lekua, Jesus maiz harat bildu izan baitzen bere dizipuluekin . Judas beraz, berekin harturik soldado andana bat bai eta apez-nausien eta farisanoen mutil zonbeit , heldu da harat, argi, tortxa eta armekin. Gertatu behar zitzaizkon guziak baitzazkien , Jesusek, biderat joanik, galdegin zioten :

+ « **Nor duzue bilatzen ?** »

L Ihardetsi zioten :

D « Jesus Nazaretarra »

L Erran zioten :

+ « **Ni naiz** »

L Judas haren saltzailea ere heien artean zen . Jesusek « ni naiz » erran orduko , gibelka joan ziren eta lurrerat erori . Galdegin zioten berriz :

+ « **Nor duzue bilatzen ?** »

L Erran zuten :

D « Jesus Nazaretarra » .

L Jesusek ihardetsi zioten :

+ « **Errana dautzuet ni naizela. Ni banauzue bilatzen, hauk, utzkitzue joaiterat** »

L Horrela bete zadin berak erran hitz hau : «Zuk eni emanetarik bat ez dut galdu »

Orduan, Zimun Petrik , baitzuen ezpata bat, atera zuen eta apez-

nausiaren mutila jo zuen eta eskuineko beharria moztu zakon ;
mutilak Malko zuen izena. Jesusek orduan erran zion Petriri :

+ « **Zure ezpata emazu bere tegian. Aitak eman kalitza ez ote dut
ba edanen ?** »

L Orduan soldadoek, aintzindariak eta Juduen mutilek hartu zuten
Jesus eta estekatu.

----- kantua -----

L Annasen ganat ereman zuten lehenik ; hau urte hartako apez-
nausi Kaifasen aitagarreba zen. Kaifas hori zen Judueri delako
kontseilu hunen emalea : « Hobe da gizon bakar bat hil dadin
populuarentzat.

Zimun Petri eta bertze dizipulu bat Jesusen ondotik zoatzen.
Dizipulu hura, apez-nausiaren ezaguna baitzen , Jesusekin batean
sartu zen apez-nausiaren ezkaratzean. Petri kanpoan egon zen,
atearen ondoan . Bertze dizipulua, apez-nausiaren ezagun hura ,
atera zen orduan eta neskato atezainari hitz bat erranik , sar-arazi
zuen Petri. Neskato atezainak erran zion Petriri :

D « Zu ere, gizon horren dizipuluetarik ote zira ? »

L Ihardetsi zuen :

D « Ez naiz hala »

L Mutil eta soldadoak han zauden ; hotz baitzen, sua piztua zuten
berotzeko. Petri ere heiekin zagon, berotzen ari .

Apez-nausia galdeka hasi zitzaion Jesusi bere dizipuluez eta
erakaspenez . Jesusek ihardetsi zion :

+ « **Agerian mintzatu nitzaio jendeari. Zinagogan eta tenploan
erakatsi izan dut beti, Judu guziak elgarretarat biltzen diren
tokietan , eta gordeka ez dut deusik erran . Zergatik ari zakizkit
galdeka ? Ene aditzaileeri galda zozute zer erran diotedan. Zer
erran dutan, badakite heiek. »**

L Jesusek hori erran orduko, han ziren mutiletarik batek mazelako bat
eman zion, erranez

D « Hola diok ihardesten apez-nausiari ? »

L Jesusek ihardetsi zion :

+ « **Gaizki mintzatu banaiz, errazu zertan ; bainan ongi mintzatu
banaiz zertako jotzen nauzu ?** »

- L Annasek, Kaifas apez-nausiaren ganat igorri zuen estekaturik. Zimun Petri ari zen bada berotzen ; erran zioten :
- D « Ez ote zira, zu ere , horren dizipuluetarik ? »
- L Ukatu zuen eta erran :
- D « Ez naiz hala. »
- L Apez-nausiaren mutiletarik batek, Petrik beharria moztu zionaren ahaide batek, erran zion :
- D « Ez ote haut nik harekin ikusi baratzean ? »
- L Berriz ere Petrik ukatu zuen ; eta ordu berean kantu egin zuen oilarrak.

----- kantua -----

- L Orduan Kaifasen etxetik auzitegirat ereman zuten Jesus. Goiza zen, Bainan etziren auzitegian sartu, beren burua kutsa beldur baitziren, Bazkoaren jateko. Pilatus kanporat atera zen heien ganat, eta erran zioten :
- D « Zer hoben emaiten diozue gizon huni ? »
- L Ihardetsi zioten :
- D « Gaixtagina ez balitz , ez ginautzun eskuetarat emanen »
- L Pilatusek erran zioten :
- D « Har zazue zihaurek eta zuen legearen arabera juja. »
- L Juduek erran zioten :
- D « Guk ez dugu.nehoren hil-arazteko eskurik.
- L Holaxe bete zen Jesusen hitza, adiarazteko zer heriotzez hil beharra zen.
- L Pilatus auzitegian sartu zen berriz eta Jesus ekar-arazirik, erran zion :
- D « Juduen erregea ote zira ? »
- L Jesusek ihardetsi zion :
- + « **Zure baitarik mintzo zira, ala bertzeek dautzute nitaz erran ?** »
- L Pilatusek ihardetsi :
- D «Judua ote naiz ni ? Zure herritar eta apez-nausiek eman zaituzte ene eskuetan : zer egjn duzu ?»
- L Jesusek erran zuen :
- + « **Ene erregetza ez da mundu huntakoa Mundu huntakoa balitz**

ene erregetza, ene jendeak guduka itazke ez nadien eror Juduen eskuetarat. Bainan ez, ene erregetza ez da hemengoa »

L Pilatusek erran zion :

D « Beraz, errege zira ? »

L Jesusek berriz :

+ « **Egia diozu : errege naiz. Huna zertako sortua naizen, huna zertako etorria naizen. mundu huntarat egiari lekukotosun emaitako . Egiari dagonak entzuten du ene mintzoa»**

L Pilatusek erran zion :

D « Egia zer da ? »

L Hori erran-eta, kanporat atera zen berriz Juduetarat , eta erran zioten :

D «Nik ez diot hobenik aurkitzen gizon horri . Bainan. Bazkokari libratzen ohi dautzuet norbait ; nahi duzue Juduen erregea libra diezazuetan ? »

L Bainan denak hasi ziren oihuka :

D « Ez hori , bainan Barrabas ! »

L Barrabas hori, ohoin bat zen .

L Orduan Pilatusek hartu zuen Jesus eta azotarazi . Soldadoek elorri korona bat bihurdikaturik ezarri zioten buruan eta kapa gorri bat soinean eman. Bazoazkon aintzinerat, erranez :

D «Agur Juduen erregea. »

L Eta behar-ondoka zerabilaten.

Pilatus atera zen berriz ere, eta erraiten diote :

D « Horra , kanporat ekartzen dautzuet, jakin dezazuen ez diotala hobenik batere kausitzen »

L Orduan Jesus atera zen kanporat, elorri korona buruan eta kapa gorria soinean. Eta Pilatusek erraiten diote :

D « Huna gizona »

L Ikusi zuteneko, apez-nausi eta mutilak oihuka hasi ziren :

D « Kurutzerat, kurutzerat »

L Pilatusek erraiten diote :

D « Zihaurek har-zazue eta kurutzefika , nik ez diot hobenik kausitzen »

L Juduek ihardoki :

D « Guk lege bat badugu eta lege horren arabera hil behar du, bere burua Jainkoaren seme egin duelakotz .»

- L Solas hori entzutearekin, are gehiago izitu zen Pilatus . Auzitegian sarturik, berriz erraiten dio Jesusi :
- D « Nungoa zira zu ? »
- L Bainan Jesusek etzion ihardetsi. Pilatusek orduan :
- D «Ez duzu hitzik enetzat ? Ez dakizu, badutala eskua zure kurutzefikatzeko, eta zure joaiterat uzteko ? »
- L Jesusek ihardetsi zion :
- + « **Etzinuke eskurik batere ene ganean , ez balizaitzu gain hartarik emana . Horra zergatik hoben handiagoa duen ni zure eskuetan ezarri nauenak. »**
- L Handik harat Jesus libratu nahiz zabilan Pilatus, Bainan Juduak oihuka hasi ziren :
- D «Joaiterat uzten baduzu , etzira Zezarren adixkide. Bere burua errege emaiten duena, Zezarren kontra ari da »
- L Solas horiek aditzearekin, Pilatusek kanporat ekarri zuen Jesus; jarri zen auzi-alkian, Harri-lauzada deitu tokian, hebrearez Gabatha. Ortziralea zen, Bazko bezpera, eguerdi nunbeit han. Pilatusek erran zioten Judueri :
- D « Huna zuen erregea »
- L Heiek berriz oihu :
- D « Ken, ken hortik ! Kurutzefika zazu »
- L Pilatusek orduan :
- D « Zuen erregea kurutzefika ? »
- L Apez-nausiek ihardetsi zuten :
- D « Guk ez dugu Zezarrez bertze erregerik »
- L Orduan eman zioten Jesus , kurutzefika zezaten . Hartu zuten beraz eta ereman.

----- kantua -----

- L Kurutzea zeramala berak, atera zen Buru-hezurtegia deitu tokira, hebrearez Golgotha.
Han kurutzefikatu zuten, eta harekin bertze biga, bi aldetarik, eta Jesus erdian.
Pilatussek izkirio bat egin zuen eta kurutze ganean ezarri ; izkiriatura zen : Jesus Nazaretarra, Juduen Erregea. Izkirio hori Judu ainitzek irakurri zuten , hiriari hurbil baitzen Jesus kurutzefikatu zuten tokia, eta izkiriatura zen hebrearez, grekaz eta latinez . Orduan

Juduen,apez-nausiek erran zioten Pilatusi :

D « Etzazula izkiria : Juduen erregea , bainan bai : « Juduen erregea naiz » erran duela.

L Pilatusek ihardetsi :

D « Izkiriatuak izkiriatu »

L Jesus kurutzefikatu ondoan, soldadoek haren jauntziak hartu zituzten eta laurdenkatu, laurden bat bakotxarentzat ; gero soinekoa . Josturarik gabea zen soinekoa eta gainetik behererat batean ehoa. Elgarren artean egin zuten :

D « Ez dezagun urra , bainan xotxak atera ditzagun norena izanen den »

L Hola bete zen Liburu sainduetako errana : « Ene jauntziak zatikatu dituzte elgarren artean , ene soinekoaz xotxak ateratu » Hola egin zuten soldadoek.

Horiek hola, Jesusen kurutzearen ondoan zauden haren ama, haren amaren ahizpa Maria Kleofasen emaztea, eta Maria Madalena. Jesusek bere ama ikusi zuenean, eta maite zuen dizipulua haren ondoan, erran zion bere amari :

+ « **Emaztekoa , horra zure semea** »

L Gero erran zion dizipulari :

+ « **Horra zure ama** »

L Eta ordudanik, dizipuluak hartu zuen Maria bere etxean . Gero, Jesusek baitzakien oro eginik zirela , Liburu sainduetako hitza bete zadin, erran zuen :

+ « **Egarri naiz** »

L Bazen han untzi bat, ozpinez betea. Hisopa-makil baten muturrean ezarri zuten

mustuka bat ozpinez betea eta Jesusen ahorat hurbildu . Ozpina hartu zuenean , Jesusek erran zuen :

+ « **Oro eginik daude** »

L Eta burua apaldurik, azken hatsa eman zuen.

(Hemen apur bat belauuniko, ixilik)

L Apagailu eguna ortziralea, gorputzak etziren kurutzean utzi behar larunbat-kari , Bazko egun handia baitzen larunbat hura. Beraz, Juduek galdegin zioten Pilatusi zangoak hautsi eta, gorputzak handik ken-arazteko . Etorri ziren beraz soldadoak, eta hautsi

zituzten Jesusekin kurutzefikatuak ziren bat eta bertzearen zangoak. Jesusen ganat heltzean, ordukotz hila zela oharturik, ez ziozkaten zangoak hautsi, bainan, soldadoetarik batek, bere lantzaz, sahetsa zilatu zion, eta berehala jalgi zen odol eta ur .

Ikusi duena da lekuko, zuek ere sinets dezazuen. Egia da haren lekukotasuna, eta Jaunak badaki egia diola. Horiek oro gertatu dira bete dadin Liburu sainduak errana «Hezurrik ez diote hautsiko» Liburu sainduak dio bertzalde « Zilatu diotenari behatu diote »

- L Horiek hala, Josep Arimatearrak, Jesusen dizipulua baitzen, bainan ixilka, Juduen beldurrez, galdegin zion Pilatusi utz zezan Jesusen gorputzaren kentzerat. Pilatussek baia eman zion . Etorri zen beraz eta Jesusen gorputza kendu . Nikodemo, lehen aldian gauaz Jesusen ganat etorri zena , jin zen hura ere, ekartzen zuela mirra, belar-mintzarekin nahasirik, ehun bat liberaren heina. Hartu zuten beraz Jesusen gorputza eta oihalez inguratu, usain onekin, Juduek ehorzten ohi duten bezala. Jesus kurutzefikatu lekuan bazen baratze bat , eta baratzean hobi bat, nehor ere ez baitzen han ezarria izan . Juduentzat Bazko-bezpera baitzen, eta hobia hurbil, han ezarri zuten Jesus.